
BERDIN
BERDIN,
EGIN
DEZAKEGU
Aita ez zaitez etorri
gizonkeriekin
neskak eta mutilak
beti gara berdin!

Bazen behin, auzo batean, Ander izeneko auzotar berri bat. Bera eta bere aita, ama eta Paul oso familia paregabea ziren. Anderrek hamabi urte bete zituenean, dantzaria izatea proposatu zion bere buruari.

Bere gurasoek ez zuten oso ondo ulertzen futbolean jolasten zuelako eta dantza egiteko zaletasuna ez zutelako ezagutzen. Beraiek ez zuten inoiz ikusi Ander dantza egiten eta oso txarra zela uste zuten.

Egunak joan, egunak etorri, Anderrek hamasei urte bete zituen eta egunero eskatzen zion bere aitari dirua, dantzako lehiaketa batean parte hartzeko.

Hau zen aitaren erantzuna:

- Dantza egitea ez da zuretzat, neskentzat bakarrik da.

- Hori gezurra da. Ez nauzu inoiz ikusi nola egiten dudan dantzan.

- Baff, ez du axola, berdin dio, ez duzu parte hartuko.

Anderrek ez zion kasurik egin eta itsulapikoko dirua kontatzera joan zen, ea nahikoa bazuen lehiaketan parte hartzeko. Behar zuen guztia zeukan eta orduan dantza-eskolara joan zen. Bertan apuntatu zen. Hantxe neska

mordoa zauden eta denak barrezka:

- Zer zaude hemen egiten?
- Alde hemendik!
- Zertarako zatoz, dantza egitera? Ja, ja, ja!

Ander oso triste zegoen baina munduari bere talentu handia erakutsi behar zion.

Lehiaketa hasteko zegoen eta hiru dantza mota egin behar zituzten: Ballet klasikoa, Rock and Rolla eta hip-hopa. Ander ez zuen inoz praktikatu baina gogo handia zuen. Rock and Rollean ez zen oso trebea izan eta ez zituenez piruetak asko egin galdu egin zuen. Ez zituen hiruretan irabazi baina puntuak gehitzerakoan lehenengo geratu zen. Anderrek irabazi zuen eta neska guztiak harrituta geratu ziren. Bere gurasoek aldizkarian ikusi zuten eta beraiek ez zuten sinesten baina geroago konturatu egin ziren artista bat zela.

Momentu horretatik Anderren familian ez zen desberdintasun gehiago egon. Orain oso dantzari bikaina da eta dantza-eskola bat du.

Esan behar ikasleei dagokionez neska eta mutilen kopurua berdin-berdin dela.